

IDOIA MALLEA HISTORIALARIA

Mendata, geure geurea danentzat liburuan Idoia Mallea bere herriaren zuztarretaraino sartu da. Kantak, usadioak eta berbakerak batu dauz, gerorako be gorde daiezan.

«Mendatako euskereak erdal ikutu gitxigaz iraun du»

Iratxe Astuy

Historia Doktoregoa ataraten egoala, bere jaioterria dan Mendataren ganeko tesia egin eban Idoia Malleak. Horretarako hamar bat urte emon eban, hizkuntzea ez eze, antxinatik gordeten diran usadio, kanta eta ipuinak batzen, besteak beste. Datu guzti horreen zati bat liburu baten batu dauz orain: *Mendata, gure geurea danentzat* tituluduna bera. Argitaratu barri dan liburu hori joan dan domekan aurkeztu eben, Mendatako ibialdi neurtuaren programearen barruan.

■ Zer topau leiteke zuk idatzitako liburuan?

Liburua atal desbardinetan sailkatuta dago. Batetik, herriko euskerearen ganeko berezitasunak batu dodaz. Gero, kantak, herrian ezagutzen diran ipuinak eta bestelako kontakizunak be agertzen dira.

■ Urte askotako beharra izango zan hori.

Doktoregoko tesia egiteko batu nebazan datuak dira. Hamar edo hamabi urte emon nebazan horreek guztiak batzen. Liburu honetan ez dodaz dan-danak sartu, baina bai zati esanguratsu bat. Izan be, liburuak 305 orrialde daukaz.

■ Herriko berbakuneak be agertzen dira. Norengana jo dozu esamolde horreek modu garbian batzeko?

Gehienbat, herriko aitita-ama-mengana jo neban. Niri be, baserri giroan hazitakoa naze-nez, ez jatan gatzegi egin eura-kaz alkarrikatzeara. Euren laguntzeari esker, oraingo gazteak ezagutu be ez dabezan berbak eta esakera zahar asko gorde ahal izan dodaz liburu honetan.

■ Ze berezitasunak daukaz Mendatako euskereak?

Behar hau egitean, geure herriko euskereak erdal ikutu gitxi daukazala konturatu naz. Eta, beste alde batetik, holako behar bat egiteko preminea egoala be



IRATXE ASTUY

KANTAK ETA IPUINAK

«Mendatako kanta eta ipuinetan kontetan diran istorioek kutsu erlijiosoa daukie»

ikusi dot. Izan be, orain urte batzuk baserriko ohiko zereginetan erabiltzen ziran tresnak, gaur egun desagertuta edo desagertzeko arriskuan dagoz, eta ondorioz, tresna horreek izentetako erabiltzen diran berbak be bai. Azken baten, herriaren zuztarretara bueltau nazela senditu dot liburu hau idaztean.

■ Liburuan agertzen diran

kanta eta ipuinak oinarri bera daukie?

Kanta eta ipuinetan kontetan diran istorioek kutsu erlijiosoa daukie gehienetan. Baina ez erlijioa orain ulertzen dogun era-ra. Kanta asko Mendatan bertan bakarrik abesten dira, eta batzutan auzune batetik bestera letra edo musikea aldatu egiten dira. Ipuinei jagokonez, amaierako erakutsia be badaukie.

■ Ahozkatzen diran moduan eta euskera landuagoan be batu dozuz. Transkripzio hori egitea asko kostatu jatzu?

Bizkaieraz egin dot, baina herriko erabilera jatorrak mantendu egin dodaz, ze bertokoak diran berbak arintasuna eta grazia emoten deusie testuei.

BERMEO

Kukubiltxo taldearen ikuskizuna izango da gaur, Umeen Egunean

Andramarietako hiru egun nagusiak igaro badira be, bermeotarrek jaietan dagoz oraindino, eta hilak 16rarte, ganera. Gaur, Umeen Eguna ospatuko dabe hainbat ekin-tzakaz. Goieko 10:30etan, Herriko lagunak txistulari alkaterearen kalejireia izango da, eta ordu bet beranduago, umeentzako parkea zabalduko dabe, Lameran. Jolas-gunea, arratsaldean be edegiko dabe, 16:00etatik 18:30etara. Nagusiek, bestalde, Karmeloko lagunak urtero gertetan daben Bermeoko Uria Mus Txapelketea hasiko da, 17:00etan. Arratsaldeko 18:00etan, Euskeraz Berbetan taldeak atondutako herri-kirolen erakustaldia egingo dabe, frontoian. Futbol partidua 18:00etan jokatu dabe, Itsas-gane zelaian.

Umeen eguna izanda, Kukubiltxo taldeak, *Ekidazu. Lehoiek ez dakite bibolina jotzen* tituludun ikuskizuna aurkeztuko dabe, 18:30ean, Lameran. 20:00ak aldera, FM diskotekeagaz dantzaldia eukiko dabe, kioskoan. Jai eguna amaitzeko, bertso saioa 22:00etan egingo dabe, Artza frontoian.

GERNIKA-LUMO

J. M. Setien Donostiako gotzain ohiak berbaldi bat egingo dau gaur

Bake Leku txokoko lagunak J. M. Setien Donostiako gotzain ohi konbitau dabe gaur berbaldi bat emoteko. *Pacificación, un reto urgente* izenpean, Elai-Alai aretoan egingo da berbaldia, 20:15 aldera. Horren ostean, afaria egingo dabe txokoan bertan.

GERNIKA-LUMO. Eskultorearen lana gogoratzeko, erakusketea zabaldu dabe Euskal Herria museoan

Lora txortea ipini dabe Eduardo Chillida eskultorearen omenez



IRATXE ASTUY

Atzo eguerdian, Eduardo Chillida eskultoreari omenaldi bat eskaini eutsen, Gernikan. Ana Madariaga Ugarte, Bizkaiko Kultura diputatua bertan zala, herritar batzuk Europako Herrialdeen Parkeraino urrerratu ziran eskultoreari azkenengo egurra emoteko. *Gure aitaren etxea* obraren aurrean, lora eskaintzea egin eutsen, eta, ondoren, artistearen ganeko erakusketea zabaldu eben Euskal-Herria Museoan. Besteak beste, omenaldiagaz bere aita «harro» egongo zala esan eban Luis Chillidak, eskultorearen semeak.

AGENDEA

GERNIKA-LUMO

Erakusketea: *Leku ukatuak* titulupean, Edu Gordo Gernikako artistaren pinturen bilduma zabaldu dago ikusgai, uriko kultur etxean. Erakusketea, hilak 17rarte egongo da zabalik.

BERMEO

Beharakadea: Orain urte batzuk desagertu zan Almiako beharakadearen ganeko erakusketea dago zabalik, egunotan, Nestor Basterretxea kultur aretoan. Bertan, kuadrilen jeitsieraren argazkiak ez eze, jantziak, musika tresna, pegatinak eta antzekoak batzen dira. Erakusketea, jaiegunak diran bitartean bakarrik egongo da zabalik.

Gazteen eguna: Herri bazkarirako izena emoteko azken eguna da, gaur.